

"IKASLEEK BEREN KASA LAN EGITEKO EKIMEN ETA ENERGIA HANDIA ERAKUTSI DUTE"



Aitor Uriondo | Axular Lizeoa | Lehen Hezkuntza

Aitor Uriondo Axular Lizeoko "Kosmo-Team" taldeko arduraduna da eta Kosmodiseako Ikono Planetan Lehen Hezkuntza 1 kategorian puntu gehien irabazi duen taldea da. Irakasle honen aburuz, ikasleak "lehen postua irabazi zutela jakin zutenean asko poztu ziren. Ilusio handiz egin zuten lan eta emaitza ona lortzeak poztasunez bete ditu".

Lana egiterakoan, zer iruditu zitzaizuen zailena?

Ikasleen adina kontuan izanda, zailtasun handiena taldea koordinatzea izan zen. Hala ere, eta helburua nahiz proiektua motibatzaileak izanda, beren kasa lan egiteko ekimen eta energia handia erakutsi dute.

2011-2012 Kosmodisea edizioan parte hartzen ari zareten aldetik, orain arte, zer iruditu zaizue interesgarriena?

Urtero bezala, Kosmodiseak talde-lana eta sorkuntza sustatzea. Proiektuak alderdi interesgarri asko lantzen ditu, eta horiek gure curriculum eta edukiekin bat datoz.

Eta zeintzuk dira jarduera honetan parte hartzerakoan izan dituzuen alde zail edo korapilatsuenak?

Agian, adin horretako haurrek ez diote zentzu handirik hartzen simulatzaileari. Nahiko errepikakorra eta estatikoa iruditzen zaigu.

Nola egiten diozue aurre Kosmodiseako gainerako ekimenari?

Bide beretik jarraituko dugu. Taldean lan egin eta gure esku dagoen guztia egingo dugu. Gure ikasleentzat oso onuragarria dela uste dugu.

Zein ezberdintasun ikusten dituzu aurtengo eta beste urteetako edizioetan? Egokiak eta onuragarriak al dira Kosmodisearen funtzionamenduan txertatutako aldaketak?

Egokiak direla uste dugu. Aurreko urteetan, batzuetan ez ziren fase bakoitzarentzat ezarritako arauak betetzen. Aurten, jarraipen handiagoa egon dela uste dugu. Horrek proiektuari seriotasun handiagoa ematen dio. Arduradunak zorrotzagoak izatea ona da.

Bestalde, wikiari eman zaio garrantzi gehiago, eta hori positiboki baloratzen dugu, oso tresna eta baliabide interesgarria dela iruditzen zaigu.